

ULTRAESKUINA ABELTEGIAN

Ultraeskuinak bere egin du
Herbehereetako nekazarien haserrea

INGURUMENA / GAUR8

Ultraeskuineko hainbat alderdi eta politikarik bere egin dute Herbehereetako nekazarien haserrea. Gobernuak ustiategietan murrizketak egin eta horietako batzuk itxi ere egin nahi ditu nitrogeno isurketa kutsakorrak gutxitzeko. Abeltzainek errepideak hartu dituzte haserrea zabalduz, eta besteak beste, Trump eta Le Penen babesas jaso dute.

Herbehereetako nekazariak gero eta babes handiagoa jasotzen ari dira. Gobernuak ingurumenerako duen plan baten aurka duela hainbat astetik egiten ari diren protestetan, baita kanpo-

tik ere, hala nola Donald Trump AEBko presidente ohia- ren eta haien kausarekin bat egiten duten ultraeskuindar- ren aldetik. Klima aldaketa globalaren negazionistek eta larrialdiaren gainetik etekin ekonomikoa jartzen dutenek aukera paregabea ikusi dute Herbehereetako krisi honetan.

Nekazariak traktoreekin blokeatu zuten A35 autobidea joan den uztailaren 27an, Bornerbroek herrian. Herbehereetako ikurra alderantziz daramate protesta moduan. Sem VAN DER VAAL | AFP

«Ematen diguten laguntza guztia onartzen dugu», esan zuen Jaap Kok Herbehereetako erdialdeko 62 urteko abeltzai- nak, babes hori defendatzeko.

Landa ingurukoaren haserrea ez da makala; Gobernuaren plan horren aurka zenbait as- tez jardun eta errepide zein autobideak moztu zituzten.

Plan horrek sektoreko nitro- geno isurketak neurri handian murriztu nahi ditu. Eta, beste- ak beste, abeltzaintza jarduera murriztea ere aurreikusten du, eta hainbat ustiategi itxi beha- rra ekar lezake horrek.

Nekazariak uste dute Haga nekazaritza sakrifikatzen ari dela «klimaren mesedetan», eta sentimendu horrek milaka lagun bultzatu zituen trakto-





reak hartu eta kale eta errepi-deetan manifestatzera.

Batzuek errepideak ere blo-keatu zituzten, simaurra eta zaborra botaz, lastozko balak erre zituzten eta politikarien etxeraino eraman zituzten protestak.

Irudiek mugak zeharkatu di-tuzte eta mundu osoko politi-kari populisten babesa jaso dute, Donald Trump eta Mari-ne Le Pen Frantziako RN alder-diko burua barne. Herbeheree-tan, Geert Wilders eskuin muturreko diputatuak eta Thierry Baudet populistak ere gaia jorratu dute beren diskur-tsoetan.

Nekazariak «Herbehereeta-ko Gobernuaren tirania klima-tikoari ausardiaz aurre egiten ari dira. Izugarria da gertatzen ari dena», adierazi zuen Do-nald Trumpek Floridan uztai-lean egindako hitzaldi batean. Marine Le Penek ere duela gu-txi Twitterren «babesa» eman die.

«Beren ekoizpenari eutsi nahi dioten nekazari holanda-rren jarrera babestuko dut», adierazi zuen prentsa ohar ba-tean Poloniako Nekazaritza ministro Henryk Kowalczykek. FDFko Jos Ubels Kowalczyke-kin bildu zen Varsovian.

«Nahiago nukeen laguntza ezkerretik etortzea, baina es-kuinetik etortzea ere ona da», esan zuen Kokek, haragitarako txahalak hazten dituen batek. Bere etxaldea, ekoizpen inten-tsiboko eskualdeetako batean dago eta Gobernuaren ikuspe-gitik ixtera behartuta egon daiteke.

«Nekazariak dira beti or-daintzen dutenak», gehitu du abeltzainak. Duela hogeit urte, bere borondatez, bere finka le-kuz aldatu zuen leku faltaga-tik garatu ezin zuen eremu ba-tetik.

DESJABETZEAK

Hagak 25.000 milioi euro libe-ratu nahi ditu 2035erako, ne-

Gazteak protesta batean, errepidea gurutzatuta dagoen trailer baten gainean, A35 autobidean, Almelo herriaren inguruan.

Sem VAN DER VAAL | AFP

kazaritza sektoreari bere ni-trogeno isuriak nabarmen murrizten laguntzeko. Gas ho-ri bereziki ongarriek eta gana-duaren simaurrak isurtzen du-te, eta ingurumena eta ingurune naturalak kaltetzen ditu.

Herbehereak berotegi efek-tuko gasen igorle handieneta-ko bat dira European, bereziki nitrogenoa isurtzeari dagokio-nez. Lautadetan bazkatzen du-ten artalde ugariak eragindako egoera da, neurri batean. Go-bernuaren planak nitrogeno

isurketak %70eraino murriz-tea eskatzen du 131 funtsezko eremutan, gehienak erreserba naturaletatik eta babestutako lurretatik gertu, 2030erako in-gurumen helburuak betetze-ko.

Gobernuak 2030erako nitro-genoko isurketak %50 murriztu nahi ditu, eta desjabetzeak ezin direla baztertu ohartarazi du, nahiz eta eragin handiko neurria izan.

«OSO HASERRE»

«Nekazariak oso haserre dau-de. Haiekin jolasten ari dira», adierazi zuen Jos Ubels Neka-zarien Defentsarako Indarren taldeko presidenteordeak (FDF-Farmers Defense Force).

«Gutxiengoa garenez, en-tzun diezaguten ozen oihu egin behar dugu. Beraz, hori egiten dugu», azaldu zuen ne-kazariak protestak azaltzeko, baina gaineratu zuen bere tal-dea ez dela errepideetako ekintzen erantzulea.

Gobernuak 2030erako nitrogeno isurketak %50 murriztu nahi ditu, eta desjabetzeak ezin direla baztertu ohartarazi du, nahiz eta eragin handiko neurria izan

Nekazariak «Herbehereetako Gobernuaren tirania klimatikoari ausardiaz aurre egiten ari dira. Izugarria da gertatzen ari dena», adierazi zuen Donald Trumpek



Nekazariak, belar ondu fardelak botatzen Alemaniaren eta Herbehereen arteko mugako kartel baten ondoan, A1 autobidean, Rijssenetik gertu, Holandako Gobernuak nitrogeno isuriak murrizteko dituen planen aurkako protesta batean.
Vincent JANNINCK | AFP

Gobernuak uste du ez duela beste aukerarik. Etxebizitzaren krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren eraikuntza proiektu handiak –nitrogenoa isurtzen dutenak horiek ere–, bertan behera utzi zituen 2019an Estatu Kontseiluak, Herbehereek berotegi efektuko gas gehiegi isurtzen dituztelakoan.

«KLIMAREN TIRANIA»

Herbehereetako biztanleria- ren zati handi bat nekazaritza sektorearekin bat dator. Herrialdea harro dago elikagaien munduko bigarren esportatzailearik handiena delako, AE-Ben atzetik.

Euskal Herriko azaleraren bikoitza baino izan ez arren eta nekazaritzarako ohiko baliabideak izan gabe, lurraren erdia nekazaritzan erabiltzen du. Puntako teknologiari esker ekoizpen eta etekin ezin hobekak lortu ditu.

Baina esportazioen zenbakietan kontuan hartu behar da herrialdeak munduko bitarte-

kari gisa jokatzeko duen pape- ra. Izan ere, bere portuetan jasotzen dituen produktu asko birsaldatu egiten ditu eta esportazioen herena inguru, berez, beste herrialdeetan ekoizten

dira. Nekazarien aldeko ikur bihurtu diren Herbehereetako bandera alderantziz jarriak errepideetan zehar hedatu dira. Landa eremuan, bai, baina

hiri handietako langile klaseko guneetan ere bai.

Amsterdamen neurrien kontrako manifestazio batek aktibista ugari bildu ondoren, jasotako babesak «asko

adierazten duela» esan zuen Wim Brouwer abeltzain eta Herbehereetako nekazaritza sindikatu nagusiko presidente lokalak (LTO).

Bere esanetan, mobilizazioak erakutsi du Gobernuaren proiektu «zentsugabeak» ez duela oinarriarik.

Onartzen du nekazaritzak gehiago egin behar duela berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko, baina uste du dagoeneko sakrifizio handiak egin dituela industriaren eta mugikortasunaren sektoreekin alderatuta. «Urteak darmatzagu nekazaritzan berritzen mota guztietako eremuetan, baina inoiz ez da nahikoa», hasperen egiten du.

Duela bi aste Gobernuarekin lehenengo negoziazioak izan ondoren, Sjaak van der Tak LTOn presidentetako egoera «oso gutxi» aldatu dela adierazi zuen. «Prestatu FDFk inoiz egin dituen ekintza gogorrenak ikusteko» ohartarazi zuen, bere aldetik Nekazarien Defentsarako Indarrak.

LEHORTEA URAREN HERRIAN

Nekazarien egonezina larritu egin da beroketa globalari lotutako beste egoera batekin batera. Lehortea, hain zuzen, uraren herrian.

Herbehereek ofizialki «ur eskasia» deklaratu zuten abuztuaren hasieran, duela hainbat astetik hona pairatzen duten lehortegatik, Europa osoan bezala.

Agintariak mugak ezarri zituzten nekazaritzari eta itsas garraioari, neurri berriak aztertzen ari dira eta lehortea garai honetan uraren erabilera zaintzeko.

Herrialdea presa, dike eta kanal sistema ospetsu batek babesten du uretatik, baina azaleraren heren bat itsas mailaren azpian duela, klima aldaketarekiko bereziki kaltebera izaten jarraitzen du.

«Herbehereak ur larria dira, baina hemen eregure ura oso baliotsua da», esan zuen Mark Harbers Uraren Azpiegitura eta Kudeaketako ministroak. Gobernuak ohartarazi zuenez, lehortea denboraldi batez jarraitzea espero da,

eta edateko ur kopuru nahikoa dagoela eta oraindik erabilgarri dagoela ziurtatu zuen. Lurralde batzuetan dagoeneko nekazariak debekatu egin diete beren laboreak azaleko urarekin ureztatzea. Eta nabigaziorako kanalen eskusa batzuk itxi egin dituzte.

Orain lehentasuna dikeen segurtasun sistemari emango diote, gero ur edangarriaren eta energiaren horniketari.

«Lehortea gero eta ikusgarriago bilakatzen ari da naturan. Horregatik holandar guztiei eskatzen diet ondo pentsa dezatela autoa garbitu edo igerilekua guztiz bete baino lehen», esan zuen ministroak.

Azken ur-mozketa ofizialak 2018an eta 2011n deklaratu ziren Herbehereetan. Joan den uztailan, herrialdeak bere hirugarren tenperaturarik altuena neurtu zuen erregistroak hasi zirenetik, 39,4 °C-rekin. Hilabete bat lehenago 30 urtean izandako lehen tornado hilkorra jasan zuen.